Araugintza
I. ikastaroa



3. saioa
Izen Sintagma

Arauen laburpena
Ohiko akatsak

Ariketak

EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO
BALIABIDE ZENTROA

Mokarte parkea z.g.
31620 Uharte. Nafarroa
948 361093 Fax: 948 361092

Aurkibidea

Izen sintagma. Ariketa orokorra..... 3
IZEN SINTAGMA: ARAUAK 5
"Hau guz(t)ia" 5
"Hiru" eta "lau" zenbatzaileak 5
"Nor, zer eta zein" galdetzaileen pluralak 6
"Bat" eta "Batzuk" zenbatzaileen deklinabidea 7
Partitiboaren erabilera zuzena..... 8
"Benetako" eta "ohiko"..... 8
"Betiko" eta honen kideak 8
IZEN SINTAGMA: ARIKETAK 9
"Hiru" eta "lau" zenbatzaileen deklinabidea 9
Partitiboa 10
"Bat" eta "batzuk", besteak beste. 12
OHIKO AKATSAK: TEORIA 13
OHIKO AKATSAK: ARIKETAK..... 16
Asko /handi..... 16
-a bat / -ak batzuk..... 16
Alfer bat / alfer huts 16
Beste ...-a / beste ... bat; beste ... -ak / beste ... batzuk 17
Artikulu zehaztua maileguetan..... 17

Izen sintagma. Ariketa orokorra

Aukera ezazu erantzun zuzena. Gogoan izan erantzun bakarra dela hautatu beharrekoa.

1. *Zein da Euskaltzaindiak hobesten duen forma?*
   a) Taberna hauetan guztietan ematen dute jaten.
   b) Taberna guzti hauetan ematen dute jaten.
   c) Taberna hauek guztietan ematen dute jaten.

2.

2.1. Zein da zuzena?

a) Atzoko hirurak etorri dira gaur ere, baina beste hamahiruak etxean gelditu dira.
b) Atzoko hiruak etorri dira gaur ere, baina beste hamahiruak etxean gelditu dira.
c) Atzoko hirurak etorri dira gaur ere, baina beste hamahirurak etxean gelditu dira.
d) Atzoko hiruak etorri dira gaur ere, baina beste hamahirurak etxean gelditu dira.

2.2. Zein da zuzena?

a) Zazpi zeuden arren, lauri bakarrik eman dizkiet gozokiak, besteak ez baitira batere gozozaleak.
a) Zazpi zeuden arren, laurei bakarrik eman dizkiet gozokiak, besteak ez baitira batere gozozaleak.

3. Zein da zuzena?

a) Nortzuek etortzen ahal dira zazpietarako?
b) Nortzu etortzen ahal dira zazpietarako?
c) Nortzuek bukatzen ahal dute txostena biharko?
d) Nortzuk bukatzen ahal dute txostena biharko?

4.

4.1. Zein da zuzena?

a) Eskolako liburu batetatik atera dut esamolde hori.

b) Eskolako liburu batetik atera dut esamolde hori.

4.2. Zein da zuzena?

a) Lagun batzu ez omen dira garaiz etorriko.

b) Lagun batzuek ez omen dira garaiz etorriko.

c) Lagun batzuk ez omen dira garaiz etorriko.

5. Zein da zuzena?

a) Lanarik gabe gelditu gara.

b) Lanik gabe gelditu gara.

c) Azken bolada honetan ez dut bertze liburuarik irakurri.

d) Azken bolada honetan ez dut bertze liburuik irakurri.

e) Azken bolada honetan ez ditut libururik irakurri.

6. Zein da zuzena?

a) Tamalez, oso gutxi izaten dira benetazko lagunak.

b) Tamalez, oso gutxi izaten dira benetako lagunak.

c) Tamalez, oso gutxi izaten dira bene-benetazko lagunak.

7. Zein da zuzena?

a) Hemen ez da inor betirako sortu denik.

b) Hemen ez da inor betiako sortu denik.

c) Hemen ez da inor betiko sortu denik.

IZEN SINTAGMA: ARAUAK

“Hau guz(t)ia”

(4. araua, 15. or.)

Hauek dira Euskaltzaindiak hobesten dituen formak:

- **Hauek guz(t)iak** eta gauza **hauek guz(t)iak**
- **Hauetan guz(t)ietan** eta **taberna hauetan guz(t)ietan,** etab.

Beraz, *hau guz(t)ia* eta *guz(t)i hau* esapideen artean, lehena da hobesten dena.

- Ontzat ematen dira **hau guz(t)iau** bezalako formak ere. Ez dira batasunerako egoki ikusten forma hauek: **guzti hauek* edo **guztihauek*, **gizonau*, etab.

“Hiru” eta “lau” zenbatzaileak

(8. araua, 25. or.)

Zenbatzaile hauek biek, deklinabide berezia dute:

- Mugagabean, bokalez amaituriko gainerako hitzen antzera: **hiruk, hiruri, lautan, lautatik,** etab.
- Pluralean, ordea, **-r-** bat behar dute: **hirurak, hirurei, lauretan, lauretatik,** etab.
- Izenak direnean, honela deklinatuko dira: hiru, hirua, hiruak, hiruei...

HIRU		
KASUAK	**MUGAGABEA**	**MUGATU PLURALA**
Absolutiboa	hiru	hirurak
Ergatiboa	hiruk	hirurek
Datiboa	hiruri	hirurei
Partitiboa	hirurik	∅
Inesiboa	hirutan	hiruretan
Leku-genitiboa	hirutako	hiruretako
Ablatiboa	hirutatik	hiruretatik
Adlatiboa	hirutara	hiruretara
Genitiboa	hiruren	hiruren
Soziatiboa	hirurekin	hirurekin
Destinatiboa	hirurentzat	hirurentzat
Instrumentala	hirurez	hirurez

LAU		
KASUAK	**MUGAGABEA**	**MUGATU PLURALA**
Absolutiboa	lau	laurak
Ergatiboa	lauk	laurek
Datiboa	lauri	laurei
Partitiboa	laurik	∅
Inesiboa	lautan	lauretan
Leku-genitiboa	lautako	lauretako
Ablatiboa	lautatik	lauretatik
Adlatiboa	lautara	lauretara
Genitiboa	lauren	lauren
Soziatiboa	laurekin	laurekin
Destinatiboa	laurentzat	laurentzat
Instrumentala	laurez	laurez

Taula hauek ***hiru*** eta ***lau*** zenbakiei bakarrik dagozkie eta ez *hamahiru, hamalau, hogeita hiru, hogeita lau,* eta abarri. Horien pluraleko deklinabidea hauxe da: *hamahiruak, hamalauak, hogeita hiruak, hamahiruei, hamalauei, hogeita hiruei,* etab.

Analogiaz sortu diren *zazpirak, zortzirak* eta horrelakoak bazter batera utzi behar dira euskara idatzian, hauek bokalez amaituriko bertze edozein izen bezala deklinatzen baitira: *seiak, zazpiak, zortziak, seietatik, zazpietarako, zortzietako,* etab.

"Nor, zer eta zein" galdetzaileen pluralak

(11. araua, 39. or.)

Hiru galdetzaile hauen pluralak egiteko, forma hauexek berak hobesten dira: **Nor, zer** eta **zein,** alegia. Ez ditu, ordea, atzizki pluralgileak dituzten formak inola ere gaitzesten. Orokorki duten izaera markatua aitortzen zaie soil-soilik, eta modu horretan –forma markatu gisa esan nahi da– aurkezten, bai eta onesten ere.

Atzizki pluralgiledunak erabiltzean, kontuan izan deklinabide paradigma: ***nortzuk, zertzuk, zeintzuk*** **(abs.),** ***nortzuek, zeintzuek, zertzuek*** **(erg.),** ***nortzuei, zertzuei, zeintzuei*** **(dat.),** etab.

“Bat” eta “Batzuk” zenbatzaileen deklinabidea

(12. araua, 41. or.)

Bat hitzak bi deklinabide-mota ditu. Bata, deklinabide mugatuari dagokionean erabiltzen da, ***beste*** hitzari kontrajarria agertzen denean soilik. Gainerako erabileretan deklinabide mugagabea erabiltzen da.

BAT		
KASUAK	**MUGAGABEA**	**MUGATU PLURALA**
Absolutiboa	bat	bata
Ergatiboa	batek	batak
Datiboa	bati	batari
Genitiboa	baten	bataren
Destinatiboa	batentzat	batarentzat
Soziatiboa	batekin	batarekin
Instrumentala	batez	bataz
Inesiboa	batean, baten	batean
Leku-genitiboa	bateko	bateko
Adlatiboa	batera	batera
Ablatiboa	Batetik	Batetik

Batzuk hitzak deklinabide bakarra dauka.

BATZUK	
KASUAK	**BATZUK zenbatzailearen deklinabidea**
Absolutiboa	batzuk (*batzu)
Ergatiboa	batzuek (*batzuk)
Datiboa	batzuei (*batzuri)
Genitiboa (eta bere gainean eraikiak)	batzuen (batzuengan, batzuengana, batzuengandik, batzuen baitan...) (*batzuren, *batzurengana, *batzurengandik, *batzuren baitan...)
Soziatiboa	batzuekin (*batzurekin)
Instrumentala	batzuez (*batzuetaz)
Destinatiboa	batzuekin (*batzurekin, *batzukin)
Inesiboa	batzuetan (*batzutan)
Leku-genitiboa	batzuetako (*batzutako)
Adlatiboa	batzuetara (*batzutara)
Ablatiboa	batzuetatik (batzuetarik) (*batzutatik)

Partitiboaren erabilera zuzena

(15. araua, 109. or.)

- Partitiboa artikulurik gabe, ***mugagabean***, erabiliko da beti:

- ***Lanik*** (eta ez,**lanarik*).
- ***Libururik*** (eta ez,**liburuarik*).

- Aditza beti singularrean erabiliko da:

- ***Ez dut libururik erosi*** (eta ez ,*ez ditut libururik erosi).
- ***Ez dugu lanik eginen.***

Erabilera okerrak dira, beraz, honako hauek: **Ez dituzu lagun onik aurkituko, *Aspaldian ez zizkieten elkarri horrelakorik erraten, *Ez ditut egin horren aipamenik,* etab.

"Benetako" eta "ohiko"

(19. araua, 117. or.)

- **Benetako.** Euskara batuan ***benetako*** idatziko da eta ez **benetazko.*
- **Ohiko.** Ez da aukerarik egiten ***ohiko / ohizko***-ren artean. Tradizioan nagusitzen dena eta Iparraldean gaur egun bizi den forma bakarra ***ohiko*** dela gogorarazten da.

"Betiko" eta honen kideak

(20. araua, 119. or.)

"Beti" bezalako denbora aditzondoen kasuan, ***-ko*** atzizkia tarteko denetan, hauxe eginen da: *aditzondoa + -ko:*

- ***Gaurko***
- ***Biharko***
- ***Etziko***
- ***Luzaroko***
- ***Betiko***
- ***...***

Horiexek dira hobesten diren formak, eta ez **gaurrako, *etzirako, *luzarorako,*

**betirako,* etab.

IZEN SINTAGMA: ARIKETAK

“Hiru” eta “lau” zenbatzaileen deklinabidea

Euskaratu

1. Me ha venido el tres / Me han venido tres / Me han venido los tres.

2. Lau kontsulta-liburu genituen esku artean eta **la información la hemos extraído de tres.**

3. Sólo lo han solicitado tres / Lo han solicitado los tres / Lo ha solicitado el tres.

4. Soy amiga de los tres / Soy amiga de tres.

5. Se lo di a tres (a trece) / Se lo di a los tres (a los trece) / Se lo di al tres (al trece).

6. Las cuatro veces que he ido a tu casa me has contado lo mismo.

7. Nos hemos acercado a cuatro (veinticuatro) / Nos hemos acercado a los cuatro.

8. De los cuatro (catorce) que me han enseñado sólo me llevaré tres (trece).

9. Se lo diremos a cuatro (a catorce) / Se lo diremos a los cuatro (a los catorce) / Se lo diremos al cuatro (al catorce).

10. De los cuatro (de los catorce) he podido aprender algo / De cuatro (de catorce) he podido aprender algo / Del cuatro (del catorce) he podido aprender algo.

Partitiboa

A. Partitiboa ala absolutiboa? Bete itzazu hutsuneak.

1. Nabari da Edurnek ez duela _____ erabili, bestela ez zukeen hainbeste ortografia akats izango (HIZTEGI).
2. Atzo erositako _____ da onena, nire iritziz (HIZTEGI).
3. Ez omen zuen _____ izan (BETA).
4. _____ ez genuenez, galdu egin ginen (MAPA).
5. _____ ere ez genuen eta berandu iritsi ginen autobus geltokira (ERLOJU).
6. Ba al duzu _____? (SU).
7. _____ erosi behar al dugu? (GARAGARDO).
8. Marka horretako _____ erosi behar al dugu? Nik nahiago dut beste hau (GARAGARDO).
9. Ikastetxe honetan _____ ba ote den galdetzen diot neure buruari (ORDENAGAILU-GELA).
10. Ikastetxe honetako _____ nork erabiltzen ote duen galdetzen diot neure buruari (ORDENAGAILU-GELA).
11. _____ behar izanez gero, nik neuk emango dizut (LAGUNTZA).
12. Bidaiatzeko _____ banu, bihar bertan joango nintzateke Atlas aldera (LAGUN).
13. Beti nirekin joan izan den _____ orain ere prest balego, bihar bertan joango nintzateke Atlas aldera (LAGUN).
14. Manifestazio hartan bazen _____ (JENDE).
15. Gure artean bada hori _____ (DAKIENA).
16. Aintzane da _____ ederrena (IZEN).
17. Everest da _____ garaiena (MENDI).
18. Idoia dut _____ minena (LAGUN).
19. _____ gabe ezer gutxi egin daiteke (DIRU).
20. _____ gabe bazkaltzen dugu (OGI).

B. Aukeratu zuzena (bakarra hautatu behar duzu multzo bakoitzean):

1. Ez daukat hau egiteko _____
   a) presik
   b) presarik
2. Etxean ez dago inon _____, ez hozkailuan ez kanpoan.
   a) sagarrik
   b) sagarrarik
3. Ez daukazu 50 zentimoko _____ poltsikoan?
   a) txanponarik
   b) txanponik
4. Badaukazue zinemara joateko _____?
   a) asmoik
   b) asmorik
5. Nik ez dut hartu _____, eta zuk?
   a) giltzarik
   b) giltzik
6. Badaukazu _____?
   a) arkatzarik
   b) arkatzik

C. Aukeratu zuzenak (bat baino gehiago izan daitezke zuzenak multzo bakoitzean):

1. Ez _____ hau egiteko _____
   a) dauzkat / gogoak
   b) daukat / gogorik
   c) dauzkat gogorik
2. Etxean ez _____ sagar _____, ez hozkailuan ez kanpoan.
   a) dago / gorririk
   b) daude / gorririk
   c) daude / gorriak
3. Ez _____ 50 zentimoko _____ poltsikoan?
   a) dauzkazu / txanponak
   b) dauzkazu / txanponik
   c) daukazu / txanponik
4. _____ zinemara joateko _____?
   a) Badauzkazue / asmoak
   b) Badauzkazue / asmorik
   c) Badaukazue / asmorik
5. Nik ez _____ hartu _____, eta zuk?
   a) ditut / giltzak
   b) ditut / giltzarik
   c) dut / giltzarik

“Bat” eta “batzuk”, besteak beste.

Zuzendu itzazu akatsak.

1. Ipui batetan irakurri nuen esaldi polit hori.

2. Nafarroko lagun batzurekin afaltzera joanen naiz eta ordu batetan-edo itzuliko gara.

3. Garai batetako kontuak sinestezinak dira gazte batzuentzat.

4. Irakasle batzuk ez dakite zer egin ikasleek gehiago ikas dezaten.

5. Guraso batzuk haserre daude seme alabekin.

6. Bi baino ez dira etorri: batek oso lan gutxi egin du, eta besteak ez du deus egin.

7. Batzutan hobe izaten da etxetik ez irtetea.

8. Egunen batetan aitortuko dizut egia.

9. Une batzu besteak baino egokiagoak izaten dira egia gordinak aitortzeko.

10. A zer parea, karakola eta barea! Baten eritziz, gureak egin du. Bestearen ustez, berriz, estu eta larri ibiliko gara eta ez du merezi izango.

11. Guzti hauei nik neuk esango diet, baina gainerakoei zeuk esan.

12. Nortzuk apurtu dituzte kristal guzti hauek?

13. Etzirako konponduta izanen direla esan dute zurginek.

14. Zuetako batzurekin ez naiz inoiz haserretuko, seguru nago.

OHIKO AKATSAK: TEORIA

1. Sarritan ikusten den akatsa da izen zenbakaitzak zenbakarriak balira bezala deklinatzea. Hona hemen, erabilera oker honen zenbait adibide:

**Bero ASKO egiten du arratsaldero.*	*Bero HANDIA egiten du arratsaldero.*
**Hotz ASKO dago gela honetan.*	*Hotz HANDIA dago gela honetan.*
**Haize ASKO dago*	*Haize ZAKARRA (GOGORRA, HANDIA) dabil.*
**Gose ASKO daukat.*	*OSO gose naiz / GOSEAK AMORRATZEN nago.*
**Bide ASKO falta al da?*	*Bide LUZEA falta al da?*
**Denbora ASKO da hor.*	*Denbora LUZEA da hori.*
**Denbora GUTXIEGI da.*	*Denbora LABURREGIA / GUTXIEGI da.*

2. Ohiko beste akats bat, artikulu zehaztuaren ordez, artikulu zehaztugabea erabiltzean datza. Adibidez:

**Zer da hau? Hori mahai BAT da.*	*Zer da hau? Hori mahaiA da.*
**Eneko mutil jator BAT da.*	*Eneko mutil jatorrA da.*
**Zer da, neska BAT ala mutil BAT?*	*Zer da, neskA ala mutilA?*
**Mikel irakasle on BAT da.*	*Mikel irakasle onA da.*
**Modu erraz BATean azalduta.*	*Modu errazEAN azalduta.*
**Nik kafesne BAT nahi dut.*	*Nik kafesneA nahi dut.*
**Zer da, txori BAT ala sagu BAT?*	*Zer da, txoriA ala saguA?*

3. Beste oker bat da artikulu zehaztua behar denean ez erabiltzea. Oker hau maiz mailegatutako hitzetan gertatzen da. Adibidez:

**Nik kafe_ nahi dut.*	*Nik kafeA nahi dut.*
**Zuk zer hartuko duzu? Zurito_?*	*Zuk zer hartuko duzu? ZuritoA?*
**Txikle_ nahi duzu?*	*TxikleA (txiklerik) nahi duzu?*

4. Zenbaitetan, erdararen eraginez, *huts* izenondoaren ordez, *bat* eta *batzuk* erabiltzen dira izenondoei balio enfatikoa emateko asmoz. Hona hemen erdarakada horren zenbait adibide:

**Hori alfer BAT da.*	*Hori alfer HUTSA da / Alfer GALANTA da hori.*
**Mutil hori gezurti BAT da*	*Mutil hori gezurti HUTSa da.*
**Horiek lapur BATZUK dira.*	*Horiek lapur HUTSAK dira.*
**Kakati BATZUK zarete.*	*Kakati HUTSAK zarete*

5. Maiz, *beste* izenlagun zehaztugabearen ordez, zehaztua erabiltzen da. Hau da, *bat / batzuk* artikulu zehaztugabeak erabili beharrean, mugatuan deklinatzen da. Adibidez:

**Goazen beste lekuRA.*	*Goazen beste leku BATERA.*
**Hori beste gauzA da.*	*Hori beste gauza BAT da.*
**Beste arazoAK daude.*	*Beste arazo BATZUK daude.*

6. *Berri* hitzak honako esanahi hauek ditu:
   - Erabili, hondatu edo urratu gabea*: oinetako **berriak** nituen zuk zapaldu arte.*
   - Orain-oraingoa, egin berria*: ogi **berriaren** usaina maite dut.*
   - Aurreko zerbaiten ordezkoa*: zuzendari **berria** izendatu dute.*

Hala ere, badirudi beste adiera bat hasi dela zabaltzen. Gertakari batzuen zerrendan zerbait eransten dela adierazteko erabiltzen dugu, *beste bat* erabili beharrean. Adiera berri hori okerra eta tradizio gabea da.

Horren ondorioz, esapide oker eta gaizki ulertze ugari sortzen da:

**Garaipen berri bat lortu dute.*	*BESTE garaipen BAT lortu dute.*
**Gol berri bat sartu dute.*	*BESTE gol BAT sartu dute.*
**Eraso berri bat jasan beharko dugu.*	*BESTE eraso BAT jasan beharko dugu.*

Inoiz, biak izan daitezke zuzenak, baina ondo erreparatu esan nahi dugunari, okerrik ez egiteko.

§ *Proposamen **berria** egin digute (aurrekoa bertan behera utzi dute eta haren ordezko proposamena egin digute).*

§ ***Beste** proposamen **bat** egin digute (aurrekoaz gain, badugu beste proposamen bat mahai gainean).*

7. Beste oker bat *lehengo egunean, aurreko egunean* edo *joan den egunean* esapideen ordez, **beste egunean* erabiltzean datza. Adibidez:

**BESTE EGUNEAN ez zinen etorri*	*LEHENGO EGUNEAN ez zinen etorri.*
**BESTE EGUNEAN ikusi nuen.*	*JOAN DEN EGUNEAN ikusi nuen.*
**BESTE EGUNEAN izan zen.*	*AURREKO EGUNEAN izan zen.*
**BESTE EGUNEKOA egin duzu?*	*AURREKO EGUNEKOA egin duzu?*

LEHENGO EGUNEAN = AURREKO EGUNEAN = JOAN DEN EGUNEAN

Ilari eta Entzi Zubiriren *Euskal gramatika osoa* liburutik jasoa eta moldatua

OHIKO AKATSAK: ARIKETAK

Asko /handi

Hace mucho calor	
Hace mucho viento	
¿Falta mucho camino?	
Eso es demasiado poco tiempo.	

Hace mucho frío	
Tengo mucha hambre	
Eso es mucho tiempo	

-a bat / -ak batzuk

¿Qué es esto? Eso es una mesa	
¿Qué es, un chico o una chica?	
Explicado de una manera fácil...	
¿Qué es eso, un pájaro o un ratón?	

Eneko es un chico majo	
Mikel es un buen profesor	
Yo quiero un café con leche	

Alfer bat / alfer huts

Ése es un vago	
Esos son unos ladrones	

Ese chico es un mentiroso	
Sois unos cobardes	

Beste …-a / beste … bat; beste … -ak / beste … batzuk

Vamos a otro sitio	
Hay otros problemas.	

Eso es otra cosa	

Han logrado una nueva victoria	
Tendremos que sufrir un nuevo ataque.	

Han metido un nuevo gol	

El otro día no viniste	
Estuvo el otro día	

Le vi el otro día	
¿Has hecho lo del otro día?	

Artikulu zehaztua maileguetan

Yo quiero café	
¿Quiéres chicle?	

¿Tú qué vas a tomar? ¿Zurito?	
¡Qué susto!	